**2010eko URRIAREN 21eko UDALBATZARRA**
PLENO DE 21 DE OCTUBRE DE 2010

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES**:**
**AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU, ALFREDO GOYENECHE DE INÉS, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, Mª SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**RAFAEL ECHEVERRIA PERURENA (lana**/ trabajo**), SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE (hileta**/ funeral**).**

| | |
|---|---|
| **Tokia: BERAko Herriko Etxea.** | Lugar: Casa Consistorial de BERA. |
| **Eguna: 2010-10-21** | Día: 21-10-2010 |
| **Ordua: 20:30** | Hora: 20:30 |
| **Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia** | Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria. |

**TRATATZEKO GAIAK:**

ASUNTOS A TRATAR:

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

**2010eko irailaren 30ean egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.**

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

Vista el acta de la sesión celebrada el día 30 de septiembre de 2010, por unanimidad SE APRUEBA.

**2.- A-292 UNITATEAN, (3. P., 292 L.), UDAL PLAN OROKORRA ALDAKETA XEHAKATUA EGITEKO BEHIN BETIKO ONESTEA: PROMOCIONES TABLAJEROBAITA SL**

2.- APROBACIÓN DEFINITIVA MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL EN LA UNIDAD A-292 (P. 3, P.292): PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L.

*Idazkariak gaia azaldu ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

**Ikusirik, A-292 Unitate asistematikoan (292. lur-zatia, 3. poligonoa) Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatua egiteko espedientea, PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L.k sustatua.**

**Dokumentazioa: Planaren Aldaketa Xehakatuaren proiektua, ------------- arkitektoak egina, 2010eko martxoan eta eranskina maiatzakoa.**

**2010eko uztailaren 29an Udalbatzak espediente hau hasiera batez onartu zuen.**

**Jendaurreko epean ez dute alegaziorik aurkeztu.**

**Ikusirik, Nasursak aldaketa honi buruz eginiko txostenak, 2010eko maiatzaren 3koa eta 21ekoa.**

**Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak egindako txostena.**

**Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.3, 74 eta 81.1) artikuluekin bat etorriz.**

**Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:**

**1) PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L.-k aurkeztutako Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatua, A-292 Unitate asistematikoan, behin betiko onestea honako oharrekin:**

**1.1) Nahiz eta etxebizitzaren kopurua handitu izan, eraiki bat eta katastroko partzela bakarra izan behar da.**

**1.2) S. Esteban karrika aldeko garajeko irteeran, % 6ko malda baino gutxiagoko eta, bederen, 5 metrotako itxaron gunea jarri**

*La Secretaria explica el asunto y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto expediente de modificación pormenorizada del Plan General Municipal, en la Unidad asistemática A-292 (parcela 292, polígono 3), promovido por PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L.

Documentación: Proyecto de modificación pormenorizada del plan, redactado por el arquitecto -------------, de fecha marzo de 2010 y anexo de mayo del mismo año.

Con fecha 29 de julio de 2010 el Pleno aprobó inicialmente este expediente.

En el plazo de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

Vistos informes emitidos por Nasursa sobre esta modificación de fechas 3 y 21 de mayo de 2010.

Visto informe de Secretaría emitido según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.3), 74 y 81.1) de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por mayoría absoluta, legalmente exigida, SE ACUERDA:

1) Aprobar definitivamente la modificación pormenorizada de la Unidad asistemática A-292 del Plan General Municipal presentada por PROMOCIONES TABLAJEROBAITA S.L., según las siguientes determinaciones:

1.1) Aunque se aumente el número de viviendas sólo podrá haber un edificio y una sola parcela catastral.

1.2) Deberá establecerse una zona de espera de al menos 5 metros y una pendiente inferior al 6% en la salida del garaje hacia la calle S. Esteban.

**behar da.**

**1.3) Eraikiaren fatxadek tratamendu unitarioa izanen dute nahiz formetan, koloreetan eta materialetan. Ezin izanen ditu diferentzi substantzialik sortu eraikiko parte desberdinen artean.**

**1.4) Eraikiko aurreko kalearen urbanizazioa sustatzailearen kontura izanen da eta itxidurak ordenantzen arabera egin behar dira.**

**2) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.**

**3) Behin-betiko onespen hau bai eta haien barreneko hirigintza arauak ere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.**

**4) Erabaki hau nahiz onartutako Udal Plan Orokorraren aldaketa honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari bidaltzea.**

1.3) El tratamiento de las fachadas de todo el edificio deberá ser unitario en formas, colores y materiales no creando diferencias sustanciales entres las distintas partes del mismo.

1.4) La urbanización de la calle correspondiente al frente del edificio deberá urbanizarse a cargo del promotor y los cierres de la parcela se harán de acuerdo a las ordenanzas.

2) Notificar este acuerdo a la interesada.

3) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

4) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar de la modificación aprobada e informes técnicos emitidos al Departamento de Vivienda y Ordenación del Territorio del Gobierno de Navarra.

**3.- BERAKO MUGIKORTASUN ITUNA ONETSI EST SINATZEA.**

***Aho batez, honako erabakia hartu dute:***

**Ikusirik, prestatu duten Berako Mugikortasun Ituna.**

**ERABAKI DUTE:**

**1) Aipatutako Berako Mugikortasun Ituna onetsi eta sinatzea.**

3.- APROBACIÓN Y FIRMA DEL PACTO DE MOVILIDAD DE BERA.

*Por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

Visto el Pacto de Movilidad de Bera redactado al efecto.

SE ACUERDA:

1) Aprobar y suscribir el citado Pacto de Movilidad de Bera.

**4.- “BERAKO SAREAK ALDATU ETA ZOLADURA BERRITZEKO” OBREN INBERTSIOAREN EKONOMIA ETA FINANTZA PLAN BERRIA ONESTEA.**

4.- APROBACIÓN NUEVO PLAN ECONÓMICO-FINANCIERO DE LA INVERSIÓN DE LAS OBRAS DE “PAVIMENTACIÓN Y RENOVACIÓN DE REDES EN BERA”.

*Idazkariak gaia azaldu eta, aho batez, honako erabaki hau onartu dute:*

*Explicado el asunto por la Secretaria, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**2009ko urriaren 5ean Nafarroako Gobernuak onartutako Toki Inbertsioen Planean BERAko sareak aldatu eta zoladura berritzeko zenbat obra sartu zuen.**

En el Plan de Inversiones Locales aprobado por el Gobierno de Navarra el 5 de octubre de 2009 se incluyeron diversas obras de pavimentación y renovación de redes en BERA

**2010eko abuztuaren 19an eginiko bileran Udalak obra honen proiektua eta inbertsio honen ekonomia eta finantza plana onetsi eta Toki Administrazio Departamentura bidali zuen.**

Con fecha 19 de agosto de 2010 se aprobó y remitió al Departamento de Administración Local el proyecto de estas obras y el plan económico-financiero de esta inversión.

**Hala ere, data honetan onetsi zuen proiektuan 2011. eta 2012. urteetan programatuak ziren inbertsioak daudenez, 2 urteko inbertsioa hartzen duen ekonomia eta finantza plana onartu behar da.**

Sin embargo el proyecto aprobado en dicha fecha contiene inversiones programadas para el año 2011 y 2012 por lo que el Ayuntamiento debe aprobar un nuevo plan económico y financiero que incluya la inversión de los 2 años.

**Beste aldetik ere, obra errazagoa kontratatu eta gauzatzeko Udalaren asmoa da nahiz 2011 nahiz 2012ko obrak batera egitea.**

Por otro lado, el Ayuntamiento tiene intención de acometer toda la obra a la vez, tanto la del año 2011 como la del 2012, para facilitar su contratación y ejecución.

**16/2008 Foru Legearen 16 artikulua eta 5/2009 Foru Dekretuaren 44. artikuluari jarraikiz.**

De acuerdo con lo establecido en el artículo 16 de la Ley Foral 16/2008 y el 44 del Decreto Foral 5/2009.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) "BERAko sareak aldatu eta zoladura berritzeko" obra hau finantzatzeko Kontuhartzailetzak eginiko ekonomia eta finantza plana, 2010eko urriaren 14koa onestea.**

1) Aprobar el nuevo plan económico y financiero realizado por Intervención, de fecha 14 de octubre, para la financiación de las obras de pavimentación y renovación de redes en BERA.

**2) Toki Administrazio Departamentuari 2012. urterako onartua dagoen obra 2011. urtera aldatzea eskatzea.**

2) Solicitar al Departamento de Administración Local el cambio de anualidad de la inversión del año 2012 al año 2011.

**3) Erabaki hau eta orain onetsi den dokumentazioarekin batera aipatu departamentura bidaltzea.**

3) Remitir este acuerdo junto con la documentación ahora aprobada al citado departamento.

**5.- “IGOR ETA MATTINEN TORTURATUAK¡¡¡” MOZIOA**

5.- MOCIÓN “MARTÍN ETA IGOR TORTURADOS¡¡¡”

***Alkateak mozioa irakurri du.***

*El Alcalde lee la moción.*

***Helena Santestebanek zera dio:***
***1. eta 2. puntuekin ados dago eta 3. eta 4. puntuetan abstenitu behar dela, beste gauzen artean, lana dela eta kontzentraziora ezin joan baitu.***

*Helena Santesteban manifiesta lo siguiente:*
*Está de acuerdo con los puntos 1 y 2, en el 3º y 4º se abstendrá, entre otras cosas, porque tiene trabajo y no puede ir a la concentración.*

***Alfredo Goyenechek eta Isidora Ubiriak Helena Santestabanek errandakoarekin bat egin dute.***

*Alfredo Goyeneche e Isidora Ubiria suscriben lo manifestado por Helena Santesteban.*

***Beste zinegotzi guztiak mozioaren alde agertu dira, beraz, erabaki hau hartu dute:***

*El resto de concejales manifiestan su apoyo a la moción, por lo que se adopta el siguiente acuerdo:*

1) Berriz ere inkomunikazioaren aplikapenarekin behin betikoz akautzea eskatzen dugu, atxilotuen eskubideak bermatuak izateko neurri bakarra baita.

2) Tortura desagertarazteko bidean hartutako konpromisoa berresten dugu.

3) Urriaren 28an, Donostian, goizeko 12etan epaitegiaren atarian eginen den kontzentrazioarekin bat egiten dugu, Igor eta Mattinek deklaratuko duten egunean, beraien eskubideak bermatuak izan daitezen. Kontzentrazioa “TORTURARIK EZ, BALDINTZA DEMOKRATIKOAK ORAIN¡¡”
lelopean burutuko da.

4) Erabaki honen berri komunikabideei eta dagozkien erakundeei helarazteko konpromisoa hartzen dugu, baita herritar guziei ere.

**6.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

6.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

**Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

**1) Bandoak: B36/2010.**

1) Bandos: B36 /2010.

**2) Ebazpenak: 2010eko irailaren 28ko 219. ebazpenetik 2010eko urriaren 15eko 232.era arte.**

2) Resoluciones: De la resolución nº 219 de 28 de septiembre de 2010 a la nº 232 de 15 de octubre de 2010.

**Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau tratatu dute:**

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

**7.- BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREN SOBERAKINEI BURUZKO MOZIOA: EA, EAJ/PNV ETA ARALAR**

7.- MOCIÓN SOBRE EL REMANENTE DE LA MANCOMUNIDAD DE EUSKERA DE BORTZIRIAK: EA, EAJ/PNV Y ARALAR.

***Jon Abrilek mozioa irakurri du.***

*Jon Abril lee la moción.*

***Ramon Elgorriagak ez daudela batere ados adierazi du.***

*Ramón Elgorriaga manifiesta que no están en absoluto de acuerdo.*

***Bozketa eginda, 5 boto alde (2 EA, 1 EAJ-PNV, 2 Aralar) eta 4 aurka (alkatea eta beste hiru zinegotziak) atera dira, beraz, mozioa onartu dute:***

*Realizada la votación resultan 5 votos a favor (2 EA, 1 EAJ/PNV y 2 Aralar) y 4 en contra (el Alcalde y los otros tres concejales), por lo que se aprueba la moción:*

Berako Udalak, duen egoera ekonomikoa ikusirik, eta 2011rako aurreikuspenak ikusita, honakoa erabaki eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinarazi nahi dio, erabakia har dezan:

Azken urteotan Berako Udalaren diru-sarrerak nabarmen urritu direla kontuan hartuta, eta 2011rako aurreikuspenak okerragora egitekoak direla aintzat hartuta; ikusirik 2011. urterako Berako Udalak konprometituta dituen inbertsioak, eta horiei aurre egiteko eskatu behar dituen maileguak; gaur egun duen zorpetze mailarekin arazorik izan ez dezan, kaudimen nahikoa izan dezan; eta jakinik Bortzirietako Euskara Mankomunitateak azkeneko urteotan izan duen soberakina, honakoa proposatzen dugu:

1. Mankomunitateek zorra dutenean udalek diru-ekarpena areagotu behar dutela aintzat hartuta, zilegi deritzogu soberakina dagoenean diru hori udalei itzultzea, gizarte zerbitzuen mankomunitatean egin den moduan, eta ondorioz, proposatzen dugu, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak erabaki dezala urteotan izandako soberakina Bortzirietako Udalei itzul diezaiela, bakoitzari dagokion portzentajearen arabera, kontuan harturik egun mankomunitatean dagoen kopuru hori udalek eginiko ekarpenari esker izan dela.

2. Egoki deritzogula soberakinaren %20a Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen esku gelditzea, bere ohiko jardun eta funtzionamendurako, eta itzul diezaiela gainerako %80a berau osatzen duten Udalei.

**8.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:55etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:55 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta